

## **KULTUR GUNEAREN 5. BILERA**

### BERTARATUAK:

- Belen: Kultura teknikaria.
- Gemma: Lesakako Abesbatza.
- Patxi: Beti-Gazte (Kultura).
- Edurne: Tantirumairu Euskal Folklore Taldea.
- Estitxu: Bertso Eskola eta Otsogorrienea Guraso Elkartea.
- Ander: Elutxa Txaranga.
- Piturri: Lesakako Erraldoien Konpartsa.
- Gaizka: Lesakako Txistulari Taldea, Mairu Antzerki Tailerra eta Arrano Elkartea.
- Iban: Batzoki Elkartea.
- Elena: Arkupe Elkartea.
- Isabel: Giltzarri Abesbatza.
- Joxepa: San Fermin Jubilatuen Elkartea.
- Jone eta Nekane: Lesakako Trikitilariak.
- Denis: Sortzailea.
- Ione: Geroa Bai Udal taldea.
- Iban, Maider, Ladis eta Mattane: EH Bildu Udal taldea.

Ibanek sarrera egin du eta bileraren gai-ordena aurkeztu du:

1. Aitzineko aktaren onarpena. Onartu dugu.
2. Bileren agenda: Ekaina bitarte noiz elkartuko garen adostu dugu. Hasiera batean, bilerak larunbat goizetan egingen ditugu, goizeko 9:30ean ondoko egunetan: Azaroaren 9an, abenduaren 14an, urtarrilaren 11an, otsailaren 1an, martxoaren 7an, apirilaren 4an, maiatzaren 9an eta ekainaren 6an.
3. Kultur bilgunearen araudia: Bortz puntu proposatu ditu Udalak eta hauek banan bana aztertu ditugu:

-Norabidea, izaera eta komunikazioari dagokionez denak ados gaude eta ez da aldaketarik proposatu.

-Funtzionamenduari dagokionez, aktak, deialdiak eta bilera dinamizatzea txandaka egitea zail ikusten da. Urte hau akautu bitarte, lan hau Udalaren esku geldituko da eta 2020ko ilbeltzetik aitzin hasiko gara eginbehar hau txandaka egiten. Horretarako, egutegiarekin bat zein talderi tokatuko zaion adostea proposatu da.

Bertzalde, hurrengo bileraren gai-ordena azken bileran zehaztuko da, eta hilabete horretan zehar lantzeko bertzelako gairik suertatzen bada, bilera dinamizatzea tokatzen zaionari abisatu beharko zaio.

Azkenik, honek Beleneri pasako dio informazio guztia honek zabaltze lana egiteko.

-Erabakiak hartzearen inguruan, duda bat azaldu da herritar, eragile eta Elkarten definizioaren inguruan. Honen inguruko zerrenda bat osatzea proposatu da eta Udalak egingen du. Erabakiak hartzerakoan Elkarte batek bozka bat izatea eta herritarrek bakarria izatea ongi ikusten da.

Bileren hasieran, bertaratuak zeinen izenean heldu diren apuntatuko da.

Erabaki bat bozkatu behar den egunean bozka delegatzea planteatu da baina ez dugu egoki ikusi eta ez dugu horrelakorik egingen.

Bilgunean parte hartzen duten zinegotzien inguruan ere duda bat suertatu da; Zinegotzi batek kultur talde bateko kide den heinean, talde horren bozka ematen ahal duen edo ez. Baiezkoa onartu da.

Berdinketa ematen den kasuetan zer egin? Bozketa gibelatzea, eta hilabete horretan berriz ere eztabaidatu eta adostasuna bilatzen saiatuko gara.

Harriondoaren agenda bertan adostuko da baita ere.

-Besten antoalketa Bilguneetik kanpo egingen da, dagokion besta batzordean.

Hurrengo bilerarako Udalak herriko talde eta interesatu posible guztien zerrenda ekarriko du. Honez gain *Liburu Xuria* osatzen hasteko proposamena ere eramanen du eta hau lantzen hasiko gara-.

Bilera azaroaren 9an, goizeko 09:30ean egingen dugu Harriondoan eta ordu eta erdiko iraupena izanen du.